

*Arizmendiarrietaren ustez, kooperatiben sortzea, hezurmamitze eta hedatzea, ERALDAKETA SOZIALA lortzeko modu egoki bat da, elkartasuna, konpromisoa, lankidetzeta eta justizia, balioetan oinarritutako gizarte berria lortzeko.*

*Ara hemen gogoeta sendo eta esanguratsuenak:*

*Kooperatibismoa ez da helburu bat, bitarteko bat baizik; instituzio bat da; tresna aproposa da bizitza ekonomiko eta sozialean ideal batzuk hezurmamitzeko, kontuan izanik idealon ontasuna inork ezin duela, modu jator eta zintzoan, zalantzan jarri, edo kontuan izanik, behintzat, idealok badutela besteen onarpena. 532*

*Langile klasearen adin nagusitasuna finkatuko da langile klaseak posizio ildo bat finkatzen duenean produkzio ondasunen jabetzan eta, ondorioz, ekonomiaren alor guztietan eragiten duenean. 497*

*Kooperatibak ez ziren sortu ez gerrillari sozial gisa jarduteko ez gotorleku burges gisa hondatuz joateko, baizik eta giza balioak eta balio sozialak bizirik eta jardunean mantentzeko, berritzeko gaitasuna duen eta zorte hobea merezi duen antzinako Herri zaildu baten barruan. 530*

*Kooperatibismoa abangoardiako elementutzat hartu beharra dago langile mugimenduaren barruan eta langile guztiek izan behar dute kooperatibako prestakuntza eta administrazio esperientziaren onuradun, arazoak hobeto estudiantu eta proiektatzeko. 531*

*Kooperatibek ez dute mundu itxiak izan behar, irradiazio sozialerako zentroak baizik: ez gara konkistatutako mundu batean bizi, baizik eta justizia sozialaren eta giza ordena bidezko baten aldeko gudu zelaian. 433*

*Kooperatiba izatera iritsi gara garapen eta sustapen sozialeko arazo atzeraezinak konpontzeko egokia delakoan eta beste ordena sozial eta ekonomiko bat —ondoriozko deribazio guztiekin— bultzatzeko modu eraginkorra delakoan; ez dugu kooperatiba sustapen pertsonalerako bide hustzat hartzen, are gutxiago sustapen komunitarioaz ez kezkatzeko eta deskonektatzeko bide indibidualtzat. 431*

*Hau da, enpresa kooperatiboa honelaxe identifikatu behar da: bultzada eta gestio komunitarioko enpresa publiko gisa, egitura ireki batekin eta historikoki beharrezkoa den teknologiarako burmuin eta profesional egokiak integratzeko nahikoa mekanismorekin, kontzertu ekonomiko eta sozialean printzipio demokratiko eta humanisten presentzia gaurko egunerako egokia eta balioduna izan dadin. 484*